

BERRI OROKORRAK

2019ko urriaren 25ean 7. zenbakia




Euskaraz Bizi!!!!

euskaraz bizi nahi dut

Ikasleen artean euskaraz bizitzeko gogoia eta ilusioa sustatzeko ekintzak egingo dira abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunaren harira. Asmo horren ikusgarritasunean eta girotzean lagungarri gertatuko delakoan, **Euskaraz bizi nahi dut lelodun elastikoa edo kamiseta** erostera gonbidatzen zaituztegu, egun horretan bertan –eta baita gainerakoetan ere, noski– jantzeko. Hala nahi duzuenok, **tutoreari** entregatu beharra daukazue **eskaera-orri hau, eskatutako kamiseta bakoitzeko 10 €-rekin batera**.

Oria entregatzeko **azkeneko eguna GAUR** da.

Ikaslearen izen-abizenak eta gela:

		Adina/neurria	A x B	Ale-kopurua	
				BELTZA	
				<i>nahi dut</i>	<i>gura dot</i>
Haurrak eta gazteak	2 urte	41 X 31 cm			
	4 urte	44 X 34 cm			
	6 urte	47 X 37 cm			
	8 urte	50 X 40 cm			
	10 urte	54 X 43 cm			
	12 urte	58 X 46 cm			
Estua/entailatua	S	58 X 41 cm			
	M	59 X 43 cm			
	L	61 X 44 cm			
	XL	62 X 46 cm			
	XXL	63 X 48 cm			
Zabala	S	69 X 48 cm			
	M	71 X 50 cm			
	L	73 X 54 cm			
	XL	75 X 58 cm			
	XXL	77 X 62 cm			

Ikastetxean bertan entregatuko zaizkie eskatutako kamisetak ikasleei, aurrerago.



1.-Artezkaritzako Kontseiluaren eskertza.

Artezkaritzako kideek eskerrak eman nahi dituzte "zein aldaketa egingo zenuke hurrengo 4-8 urtetan ikastolan?" galdeketa parte-hartu duzuen guztioi.

Asteazkeneko bileran jasotako erantzunen lanketarekin hasi ginen, amaitutakoan ateratako emaitzak jakinaraziko ditugu.

Mila esker!

2.-Jangelako zenbait ohar.

Jangelako bazkaldarren jarraipen egokia egiteko, izen-eman duten ikasleak egunen batean **bazkaltzen ez badira geratuko**, idazkaritzan **abisua ematea** eskatu nahi dizuegu.

3.-Xakea

Xakeko irakasleak gaixotasun baxan jarraitzen du, baina **azaroaren 6an** hasiko dira berriz eskolak.

4.-2019-20 ikasle istripu aseguru.

Eskolak, ikasle guztientzako Istripu Aseguru kontratatua daukela jakinarazten da eta aste honetan zenbateko horren kobrantza egin dela. Aseguru honek Ikastolako eraikinetik kanpo eta barne gertatzen diren istripuak estaltzen ditu, bai eskola orduetako ekintzetan gertatutakoak eta bai eskolaz kanpoko ikastolak antolatutako ekintzetan gertatutakoak ere.

(Istripua edo ezbeharrak ustekabeko eta aurreikusi ez den gertaera puntuala da, ondorio kaltegarriak dituen. Istripua, kanpoko eragile, pertsona edota objektu batek eraginez sortutakoa izango da).

Ikasle aseguruak dituen estaldurak ondorengoak dira:

HERIOTZA..... 5.000 € (14 urtetik behera, hileta gastuak)

5.000 € (14 urtetik gora)

ELBARRITASUNA (Baremoa).... 10.000 €

MEDIKU ASISTENTZIA..... limite barik (2 urte)

DENTISTA GASTUAK..... 750 €ko limitea (2 urte)

BETAURREKOAK (istripuagatik)... 150 € arte

5.-Errigora.

"Euskarari puzka". ERRIGORA egitasmoren udazkeneko kanpaina abiatuko da urriaren 29an! **Nafarroa hegoaldeko tokiko produktuak** gure artean saltzearen truke, jasotakoaren %25 zonalde hartako euskalgintza laguntzera bideratuko duen ekimena da ERRIGORA.

Aurtengoan hiru kutxa izango dira aukeran: BELTZA (50 €), BERDEA (60 €) ETA ZURIA (70 €). 23 etxek eskainiko dizkigute haien produktuak. Dozenaka langile. Ehunka nekazari. Bada familia!

Saskietan datozen produktuak hauek dira:

- **Saski beltza (betikoa):** oliba-olio birjina estra, botila ardoa, orburuak, potxak, mahats-zukua, pikillo-piperrak, zainzuri zuriak, zainzuri-krema, teilak, melokotoia almibarrean, kardua, tomate frijitua eta piper txorizero mamia.
- **Saski berdea (ekologikoa):** Orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, botila ardoa, oliba-olio birjina estra, potxak, mahats-zukua, arroz, pasta, barazki-menestra eta ozpina.
- **Saski zuria (berezia):** Orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, ardoa (kriantza), patxarana, ardo apartsua, polboroiak, patxaran mantekatutakoak, txokolatzeko arroak eta pikillo piper marmelada.

Kanpainaren aurkezpena Iruñan egongo da urriaren 29an. Saskiak **urriaren 30etik azaroaren 20ra** egongo dira salgai. Kutxen banaketa abenduaren 9tik 18ra bitarte egingo da. Ordainketa kutxa jasotzean egin beharko da.

Otarak ikastolako idazkaritzan egongo dira ikusgai datorren astetik aurrera. **Eskaerak idazkaritzan** bertan egin daitezke (943361216) **edota haur eskolan** (943374061). Ordainketa otarra jasotzeko momentuan egingo da.


OHARRAK ETAPAKA



EZ dago berririk.



Ez dago berririk.




1.-Jangela orduan egindako tailerra.

LH 1, 2, 3, 4 eta 5eko jangelako bazkaldarrek ostegun honetan ederki pasa zuten jangela orduan antolatutako tailerrean. Arto ekologikoz egindako txokolatezko taloak egin eta dastatu zituzten. Aurretik, Julenek produktu ekologikoen eta transgenikoen arteko desberdintasunen azalpenak eman zizkien eta, baita artoa nola lantzen den erakutsi ere. Ikasleek jolasen bidez asko ikasi zuten eta ondo pasa zuten!

2.-Galdutako arropak.

Ikasturtean zehar galdutako arropak eta gauzak Ageri-Aldeko eraikineko sarreran dauden kaxa uzten dira. Dagoeneko kaxa bete-beteta dago. Beraz, zuen seme-alabek zerbait galdu badute, begiratu bertan mesedez.



1.-DBHko gurasoei zuzendutako oharra.

Astlehenean, urriak 28, arratsaldeko **17:00etan** DROGAMENPEKOTASUNAREN inguruko hitzaldia izango da **DBH osoko gurasoei zuzenduta**.